

GETXOKO IMMIGRAZIO PANORAMIKAK

2014 / / / / 04 zk.

“Haurrak jostailuekin engainatzen ditut, helduak aurreiritziekin.”
Lisandro. Estatu-politikari grekoa, k.a. 395. urtea.



Getxo
bizi ezazu



ikuspegi
Immigrazioaren Euskal Behatokia
Observatorio Vasco de Inmigración



Azkenaldian, batik bat XXI. mende hasieratik hona, atzerriko jende ugari etorri da gurera bizitzera. Orain, ordea, migrazio-prozesu horren beste fase bat hasi berri da: orain arte migrazio-fluxu handia izan dugu eta biztanleriak gora egin du; orain, ordea, fluxua ez da hain handia eta biztanleria egonkortu egin da. Aurreko urteetan atzerriko jendea hartzen eta prozesu horiek kudeatzeko politika, programa eta ekintzak antolatzen ahalegindu gara. Orain, berriz, dauzkagun datuak ikusita, beste gai bat aztertu beharko genuke arretaz. Izan ere, gure gizartea, garai berriak bizi ditugunez, aldatu egin da eta gero eta anitzagoa da; eta anitzasun hori kudeatzea izango da orain gure lana, gizarteratzea eta bizikidetzaren oinarri hartuta. Anitzasun hori nola bideratzen eta tratatzen dugun, halakoa izango da gero, neurri handi batean, euskal gizartearen eta, bereziki, getxotarron etorkizuna.

Panoramika honen helburua da Getxon bizi den atzerriko biztanleriaren bilakaera ezagutzea, oso interesgarria izan daitekeelako askotariko gizarteetan esku hartzen duten instituzio eta erakunde publiko eta pribatuentzat; Getxokoentzat, esate batera. Horren harian, udalerrian erroldatutako atzerriko biztanleen inguruko gai hauek aztertu ditugu: demografia, bizilekua, hezkuntza, administrazioa eta enplegua. Ikuspegiaren laugarren edizio honetan ikusi dugu Getxoko biztanle atzerriarren kopuruak behera egin duela balio absolutuetan, eta 1998tik ez da gertatu horrelakorik; hala eta guztiz ere, atzerrian jaiotako biztanleen kopuruak gora egiten jarraitu du pixkanaka (horrek esan nahi du nazionalitatea eskuratze aldera martxan jarritako prozesuek eragina dutela, eta izango dutela aurrerantzean ere). Orobat, udalerriko etorkinen profilari dagokionez, emakume latinoamerikarrak dira ugariak, eta hori bat dator teoria honekin: migrazio-fluxuak ez dira mugimendu kaotikoak, harrera-gizarteko enplegunitxoaren premien arabera baizik.

DEMOGRAFIA

1. Biztanleriaren bilakaera

Biztanleriari dagokionez, 2014ko urtarrilaren 1ean 80.337 pertsona zeuden Getxon erroldatuta, eta horietatik 5.266 (%6,6) atzerriarrak ziren; portzentaje hori bat dator EAEkoarekin (2013an %6,8).

Azken urteotan, euskal biztanleriak¹ behera egin du; zehazki, 2000. urtean baino 7.391 euskal biztanle gutxiago daude. Horrez gain, 2013an atzerriko biztanleriak gora egiteari utzi zion

¹Testua arintzeko eta deskribapen luzeegiak ez egite aldera, "euskal biztanleria" erabiliko dugu "Getxon erroldatutako nazionalitate espainiarreko biztanleria" adierazteko.

eta azken bi urteotan behera egin du: orain orduan baino 442 biztanle atzerritar gutxiago daude. Gauzak horrela, udalerrian duela 14 urte baino 3.452 biztanle gutxiago daude orain.

1. TAULA. GETXOKO BIZTANLERIAREN BILAKAERA, IGOERA ERLATIBO ETA ABSOLUTUAK ETA ATZERRITARREN TASA (2000-2014)

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007
Biztanleria osoa	83.789	83.955	84.024	83.624	83.004	82.687	82.327	81.746
Euskal biztanleak	82.462	82.237	81.709	80.846	79.984	79.082	78.324	77.492
Biztanle atzerritarrak	1.327	1.718	2.315	2.778	3.020	3.605	4.003	4.254
Igoera absolutua		391	597	463	242	585	398	251
Igoera erlatiboa		29,5	34,7	20,0	8,7	19,4	11,0	6,3
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100
Euskal biztanleak	98,4	98,0	97,2	96,7	96,4	95,6	95,1	94,8
Biztanle atzerritarrak	1,6	2,0	2,8	3,3	3,6	4,4	4,9	5,2


	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Biztanleria osoa	82.411	81.731	81.206	81.401	81.493	80.385	80.337
Euskal biztanleak	77.363	76.507	75.959	75.953	75.785	75.056	75.071
Biztanle atzerritarrak	5.048	5.224	5.247	5.448	5.708	5.329	5.266
Igoera absolutua	794	176	23	201	260	-379	-63
Igoera erlatiboa	18,7	3,5	0,4	3,8	4,8	-6,6	-1,2
Guztira	100	100	100	100	100	100	100
Euskal biztanleak	93,9	93,6	93,5	93,3	93,0	93,4	93,4
Biztanle atzerritarrak	6,1	6,4	6,5	6,7	7,0	6,6	6,6

Hurrengo grafikoan ikusten den moduan, 2008. urtera arte euskal biztanleen kopuruak behera egin zuen, eta biztanle atzerritarrenak, berriz, gora.

Gero, 2009-2011 aldian, igoera hori eten egin zen, eta azken bi urteotan udalerrian erroldatutako atzerritarren kopuruak behera egin du.

2011. urtean 2009. urtean baino 400 atzerritar gehiago baino ez zeuden erroldan; aurreko urteekin alderatuta, igoera oso txikia da. Zenbaki absolutuetan, 2012. urtean egin du behera gehien biztanleria atzerritarrak: aurreko urtean baino 379 gutxiago zeuden. Beherakada hori krisi ekonomikoaren ondorio izan daiteke; beraz, argi dago migrazio-mugimenduetan ekonomiak eragin handia duela.


1. GRAFIKOA. GETXOKO BIZTANLERIAREN BILAKAERA, NAZIONALITATEAREN ARABERA. (2000-2014)



2. Biztanle atzerritarren jaiolekuak, nazionalitatearen arabera

Getxon bizi diren atzerriko biztanleen %23,7 EBko herrialdeetako da. Jatorriz EB28ko herrialdeetakoak diren biztanleen pisua portzentajezko 16 puntu jaitsi da 2000. urtetik; jatorriz erki-degotik kanpokoak direnen kopuruak, aldiz, gora egin du.

4. GRAFIKOA. ERKIDEGOKO ETA ERKIDEGOTIK KANPOKO BIZTANLE ATZERRITARREN BILAKAERA (2000-2013)




4. TAULA. ERKIDEGOKO ETA ERKIDEGOTIK KANPOKO BIZTANLE ATZERRITARRAK (2014)

	Guztira	Gizonak	Emakumeak
Getxoko biztanleria osoa	80.337	100	37.774
Nazionalitate espainiarra duten biztanleak	75.071	93,4	35.624
EB28ko biztanleak	1.246	1,6	598
EB28tik kanpoko biztanleak	4.020	5,0	1.552

Eremu geografikoen arabera, Latinoamerikako biztanleak dira ugariena: udalerrian erroldatutako atzerriko biztanleen erdia baino gehiago, zehazki %58,5, latinoamerikarra da. Halaber, EBko herrialdeetako biztanle asko daude (atzerritarren %23,6). Biztanle atzerritarren %9,2 asiarra da, eta asiar gehienak Filipinetakoak: biztanle atzerritarren %5,3, hain zuzen ere. Aurreko urteetan bezala, Bizkaian erroldatutako biztanle filipinarren erdia baino gehiago (%58,6) Getxon bizi da; kopuru hori, gainera, EAEko biztanle filipinarren %45,2 da.

5. GRAFIKOA. GETXOKO BIZTANLE ATZERRITARREN NAZIONALITATEA, EREMUKA (2014)



3. Jaiotzez atzerrikoak diren eta nazionalitate espainiarra duten biztanleak

Getxon, 2014ko urtarrilaren 1ean, jaiotzez atzerrikoak ziren eta nazionalitate espainiarra zuten 344 biztanle zeuden, 2011. urtean baino 344 gehiago. Horren harian, 10 biztanle horietatik 6 jaiotzez latinoamerikarrak dira. EB28ko herrialdeetako biztanleak ere asko dira (%15,7, ia 400 lagun), baita Asiakoak ere, batik bat Filipinetakoak (%6,9, 173 lagun). Biztanle horiei dagokienez, azken aldian gora egin du Espainiatik kanpo jaio eta, atzerriko nazionalitatea eduki arren, gurean urteetan bizi ondoren nazionalitate espainiarra eskuratu duten biztanleen portzentajeak.

5. TAULA. JAIOTZEZ-ATZERRIKOAK DIREN ETA NAZIONALITATE ESPAINIARRA DUTEN BIZTANLEAK (2014)

	Biztanleria	atzerrian jaiotakoan dutenen %	% espainiar nazionalitatea
Nazionalitate espainiarra duten biztanleak	75.071	100	
Espainian jaiotakoak	72.577	96,7	
Atzerrian jaiotakoak	2.494	3,3	100
EB28	391	0,5	15,7
EBko gainerako herrialdeetakoak	136	0,2	5,5
Magreb	61	0,1	2,4
Afrikako gainerako herrialdeetakoak	39	0,1	1,6
Ipar Amerika	77	0,1	3,1
Latinoamerika	1.529	2,0	61,3
Filipinak	173	0,2	6,9
Asiako gainerako herrialdeetakoak	78	0,1	3,1
Ozeania	8	0,0	0,3
Daturik gabeak	2	0,0	0,1

4. Jaiotzez atzerrikoak diren eta nazionalitate espainiarra duten biztanleak, jaioterriaren arabera

Jaiotzez atzerrikoak diren eta nazionalitate espainiarra duten ia 2.500 biztanle horietatik ugariak kolonbiarrak dira (341 Kolonbian jaiotakoak dira), baita venezuelarrak ere (230 lagun Venezuelan jaiotakoak dira). Gainera, herrialde horietan jaio eta gure udalerrian erroldatuta dauden biztanle gehienek nazionalitate espainiarra dute (%60k eta %81,3k hurrenez hurren). Filipinarrei dagokienez, esan bezala, udalerrian pisu handia dute, Filipinetan jaio eta gure udalerrian erroldatuta dauden biztanleen %40k du nazionalitate espainiarra.

6. TAULA. JAIOTZEZ ATZERRIKOAK DIREN ETA NAZIONALITATE ESPAINIARRA DUTEN BIZTANLEAK, JAIOLEKUAREN ARABERA (2014)

	Biztanle espainiarrak	Biztanle atzeritarak	Guztira	
			K	%
Guztira	75.071	5.266		
Espainian jaiotakoak	72.577	318		
Venezuelan	230	53	283	81,3
Errusian	76	19	95	80,0
Txilen	76	32	108	70,4
Txilen	88	44	132	66,7

(Hurrengo orrialdean jarraitzen du)

	Biztanle espainiarrak	Biztanle atzerritarak	Guztira	
			K	%
Guztira	75.071	5.266		
Espainian jaiotakoak	72.577	318		
Ekuadorren	163	89	252	64,7
Frantzia	168	110	278	60,4
Kolonbian	341	227	568	60,0
Kuban	88	65	153	57,5
Uruguain	32	24	56	57,1
Argentinan	135	116	251	53,8
Estatu Batuetan	65	64	129	50,4
Perun	142	155	297	47,8
Filipinetan	173	266	439	39,4
Erresuma Batuan	64	111	175	36,6
Brasilen	34	79	113	30,1
Alemanian	53	128	181	29,3
Txinan	31	102	133	23,3
Marokon	52	172	224	23,2
Bolivian	124	1.204	1.328	9,3
Paraguain	21	573	594	3,5
Gainerakoetan jaiotakoak (57)	338	1.315	1.653	20,4

Aitzitik, jaiotzez Boliviakoak eta Paraguaikoak diren biztanleen %9,3k eta %3,5ek baino ez du nazionalitate espainiarra, nahiz eta jatorri horietako biztanleak ugarienetakoak izan.

5. Jaiolekua eta nazionalitatea

Getxon, Espainian jaio diren arren atzerriko nazionalitatea duten 318 lagun daude erroldatuta. Alde horretatik, aurreko puntuan ez bezala, nazionalitate ugarienetako biztanleek daukate seme-alaba gehien. Izan ere, Boliviarreko nazionalitate dutenak dira ugarietak: Espainian jaiotako 86 biztanle boliviarrak daude; ondoren, errumaniar eta alemaniar nazionalitatea dutenak.

Jaiolekuaren eta nazionalitatearen aldagaien gurutzaketak erregularizazio-tasa kontuan hartuta ulertzen dira ondoen, eta gai hori aurrerago aztertuko dugu.


7. TAULA. GETXON JAIO DIREN ETA ATZERRIKO NAZIONALITATEA DUTEN BIZTANLEAK (2014)

	Espainian jaiotakoak	%	% metatua
Bolivia	86	27,0	27,0
Errumania	47	14,8	41,8
Alemania	40	12,6	54,4
Txina	18	5,7	60,1
Frantzia	13	4,1	64,2
Erresuma Batua	13	4,1	68,2
Paraguai	11	3,5	71,7
Filipinak	11	3,5	75,2
Maroko	10	3,1	78,3
Herbehereak	7	2,2	80,5
Ekuador	6	1,9	82,4
Kolonia	5	1,6	84,0
Estatu Batuak	5	1,6	85,5
Italia	4	1,3	86,8
Portugal	4	1,3	88,1
Gainerakoak	38	11,9	100,0
Guztira	318	100,0	

6. Sexua eta nazionalitatea

Getxon erroldatuta dauden eta atzerriko nazionalitatea duten biztanle gehienak (%60) emakumezkoak dira. Gainera, atzerritarren multzoan emakumeek pisu handiagoa dute, euskal biztanleen multzoan baino (%52,5). Aldez aurretik esan bezala, Getxoko etorkin gehienak emakumeak izateak gure enplegu-nitxoekin du zerikusia, zerbitzuen sektoreko eskaria handia baita, batik bat zerbitzu pertsonalen arlokoa (etxeko lanak, zaintza eta mendekotasunak dituztenen arreta).


6. GRAFIKOA. GETXOKO BIZTANLEAK NAZIONALITATEAREN ETA SEXUAREN ARABERA (2014)



Horrela, ez da harrizkoa Getxon erroldatutako biztanle atzerritarren %38,3 Latinoamerikatik etorritako emakumeak izatea.

Hurrengo grafikoan ikusten da askoz emakume gehiago daudela gizon baino, Latinoamerikako eta Europako erkidegotik kanpoko biztanleen multzoan (%64,8 eta %69,4, hurrenez hurren). Aitzitik, afrikarren multzoan gizon gehiago dago emakume baino (%68). Azkenik, EB28ko herrialdeetako, Ipar Amerikako eta Asiako biztanleen egitura, sexu aldetik, orekatuagoa da.

7. GRAFIKOA. GETXOKO BIZTANLE ATZERRITARRAK, NAZIONALITATEAREN ETA EMAKUMEEN TASAREN ARABERA (2013-2014)



Emakumeen tasari dagokionez, 50 lagun baino gehiagoko nazionalitate atzerritarreko biztanle-multzoak kontuan hartzen baditugu, latinoamerikarren multzoan dago emakume gehien, eta batez ere Nikaraguakoak (%94,2), Paraguaikoak (%79,2), Honduraskoak (%73,7),

Brasilgoak (%67,5) eta Boliviakoak (%62,3) dira. Horiez gain, filipinar nazionalitatea dutenen %61 ere emakumeak dira.

Gizon gehiago daude emakume baino, berriz, honako herrialde hauetatik etorritakoen artean: Maroko (%32,1), Italia (%36,6) eta Portugal (%45,9).

8. TAULA. GETXOKO EMAKUME ATZERRITARREN TASA, NAZIONALITATEAREN ARABERA

Gehienak gizonezkoak dira				Oreka				Gehienak emakumezkoak dira			
	2012	2013	2014		2012	2013	2014		2012	2013	2014
Maroko	34,6	35,1	32,1	Txina	49,3	50,8	49,2	AEB	55,2	58,8	53,8
Italia	40,8	40,2	36,6	Alemania	43,5	45,6	49,7	Argentina	47,7	51,2	53,9
Portugal	31,3	31,0	37,0	Venezuela	55,6	47,6	50,9	Kolonbia	55,2	58,1	55,1
Erresuma Batua	42,3	43,6	45,9	Ekuador	57,8	53,3	51,1	Peru	56,5	55,6	55,8
				Kuba	54,9	56,3	52,5	Errumania	57,7	59,3	59,0
				Frantzia	53,4	51,4	52,6	Filipinak	62,6	62,5	60,9
								Bolivia	63,1	63,5	62,3
								Brasil	69,0	69,0	67,5
								Honduras	78,2	77,1	73,7
Gainerako atz.	50,6	49,1	36,6					Paraguai	79,7	79,8	79,2
Guztira Getxon	53,0	53,0	53,0					Nikaragua	90,5	92,3	94,2

7. Nazionalitate nagusiak

9. TAULA. NAZIONALITATE NAGUSIEN BILAKAERA


	2014				2013				2012				2011
	Gizon.	Emak.	Guzt.	%	Gizon.	Emak.	Guzt.	%	Gizon.	Emak.	Guzt.	%	%
Bolivia	487	804	1.291	24,5	483	839	1.322	24,8	526	901	1.427	25,0	26,9
Paraguai	121	461	582	11,1	126	498	624	11,7	136	534	670	11,7	10,1
Errumania	204	293	497	9,4	202	294	496	9,3	214	292	506	8,9	8,0
Filipinak	109	170	279	5,3	97	162	259	4,9	104	174	278	4,9	4,8
Kolonbia	101	124	225	4,3	106	147	253	4,7	141	174	315	5,5	6,0
Peru	68	86	154	2,9	83	104	187	3,5	100	130	230	4,0	4,4
Maroko	125	59	184	3,5	111	60	171	3,2	100	53	153	2,7	2,4
Alemania	89	88	177	3,4	86	72	158	3,0	95	73	168	2,9	2,8
Honduras	46	129	175	3,3	32	108	140	2,6	26	93	119	2,1	1,7
Nikaragua	8	130	138	2,6	9	108	117	2,2	10	95	105	1,8	1,2
Err. Batua	73	62	135	2,6	79	61	140	2,6	79	58	137	2,4	2,7
Frantzia	63	70	133	2,5	70	74	144	2,7	69	79	148	2,6	2,8
Txina	62	60	122	2,3	62	64	126	2,4	69	67	136	2,4	2,3
Italia	64	37	101	1,9	61	41	102	1,9	64	44	108	1,9	2,0
Ekuador	45	47	92	1,7	49	56	105	2,0	76	104	180	3,2	3,8
Gainerakoak	485	496	981	18,6	478	507	985	18,5	491	537	1.028	18,0	18,1

Getxon erroldatutako biztanle atzerritar gehienek nazionalitate boliviarra dute (1.200 boliviarrak baino gehiago daude Getxon erroldatuta). Gero Paraguaikoak (%11,1) eta Errumaniakoak (%9,4) datoz; eta ondoren filipinarrak (%5,3); hauek, Kolonbiako eta Peruko biztanleen aldean, euren pisu erlatiboa handitu dute.


Alde horretatik, 100 biztanle baino gehiago dituztenen zerrendan; hau da, 15 herrialde adierazgarrienen zerrendan honako hauek daude: Latinoamerikako zazpi nazionalitate (Bolivia, Paraguai, Kolonbia, Peru, Honduras, Nikaragua eta Ekuador), Europako bost (Errumania, Alemania, Frantzia, Erresuma Batua eta Italia), Asiako bi (Filipinak eta Txina) eta Afrikako bat (Maroko).

Migrazio-prozesua nazionalitateen etengabeko fluxua da, horiek ordezkatzeko-mekanismoen bitartez denboran zehar bata bestearen ondoren heltzen dira eta elkar ordezkatzeko dute; dena den, mekanismo horiek badute eremu geografikoarekin zerikusia duen logika bat. Finkapen aldaketa horrek eragiten du, adibidez, garai batean bolumen eta portzentaje aldetik garrantzitsuenak ziren nazionalitateek beste garai batean atzera egitea.

8. GRAFIKOA. GETXOKO ATZERRITARREN FINKAPENAREN BILAKAERA EREDUAK, NAZIONALITATEAREN ARABERA (1998-2014)



9. GRAFIKOA. GETXOKO NAZIONALITATE NAGUSIEN BILAKAERA (2012-2014) %




Hala, EB28ko herrialde batzuetako biztanleek, Alemania eta Erresuma Batukoek, adibidez, aztertutako aldiko lehen urteetan pisu handiena zuten arren, galdu egin dute pixkana eta, orain, oso portzentaje txikiak dauzkate. Kolonbiarrei eta ekuadortarrei ere gauza bera gertatu

zaie: 2003. eta 2004. urteetan pisu handia zuten eta azken urteetan galdu egin dute. Zergatik? Herrialde horietatik etorri den jendea pixkanaka bertakotu egin delako, beharbada. Boliviatik eta Paraguitatik etorritakoekin kontrakoa gertatu da. Izan ere, bi nazionalitate horien pisua lehen ia ez zen (%0,2) eta, orain, udalerrian erroldatutako atzerritarren ia laurdena (%24,5) boliviarra da eta %11,1 paraguiarra.

Nazionalitatearen ordezkariak aintzat hartuz gero, argiago ikusten da Kolonbian, Perun eta Ekuadorren jaiotakoek gurean zer pisu duten (%7,6, %4 eta %3,4, hurrenez hurren); izan ere, nazionalitate horietako biztanle asko bertakotu egin dira. Modu berean ikusten da Venezuelaren eta Argentinaren jaiotakoek ere badutela pisua (%3,8 eta %3,4, hain zuzen ere).

10. GRAFIKOA. GETXOKO ATZERRITARREN JAIOLEKU NAGUSIEN BILAKAERA (2012-2014) %



10. TAULA. GETXOKO ATZERRITARREN NAZIONALITATE ETA JAIOLEKU NAGUSIAK (2014)

	NAZIONALITATEA				JAIOLEKUA		
	Guztira	Emakumeak	Gizonak		Guztira	Emakumeak	Gizonak
Bolivia	1.291	487	804	Bolivia	1.328	843	485
Paraguai	582	121	461	Paraguai	594	471	123
Errumania	497	204	293	Kolonia	568	344	224
Filipinak	279	109	170	Errumania	462	281	181
Kolonia	225	101	124	Filipinak	439	268	171
Peru	154	68	86	Peru	297	169	128
Maroko	184	125	59	Venezuela	283	148	135
Alemania	177	89	88	Frantzia	278	149	129
Honduras	175	46	129	Ekuador	252	155	97
Nikaragua	138	8	130	Argentina	251	127	124
Erresuma Batua	135	73	62	Maroko	224	80	144
Frantzia	133	63	70	Honduras	186	136	50
Txina	122	62	60	Alemania	181	103	78
Italia	101	64	37	Erresuma Batua	175	87	88
Gainerakoak			543	Kuba	153	86	67
Guztira			3.116	NiKaragua	139	132	7
				Txina	133	73	60
				Mexiko	132	80	52
				Estatu Batuak	129	72	57
				Brasil	113	78	35
				Txile	108	62	46
				Gainerakoak	1.017		

8. Adin-egitura eta mendekotasun-tasak, nazionalitatearen arabera

Hurrengo grafikoan ikusten da biztanle atzerritarren adinen egitura euskal biztanleena baino gazteagoa dela; Getxon erroldatutako euskal biztanle gehienak 45 urtetik gorakoak dira, %53,3 hain zuzen; biztanle atzerritarrei dagokienez, ordea, %22 bakarrik da 45 urtetik gorakoa. Datu horiek, noski, atzerritarren migrazio-mugimenduek lanarekin duten zerikusiaren ondorio dira.

Adin-egituran 25 urtetik 44 urterako multzoan dago alde handiena: euskal biztanleen laurdena soilik dago multzo horretan; biztanle atzerritarrei dagokienez, berriz, erdia. Halaber, euskal biztanleria zahartzen ari den bitartean (euskal biztanleen %22 65 urtetik gorakoa da), adineko atzerritar oso gutxi dago (atzerritarren %3,5 baino ez da 65 urtetik gorakoa).

Horren harian, mendekotasun-tasa, hau da, aktiboak izan daitezkeen biztanleen aldean ez-aktibo izan daitezkeen indize demografikoa, kalkulatzea oso interesgarria da. Indize hori 16 urtetik beherako edo 64 urtetik gorako biztanleen, eta 16 urtetik 64 urtera arteko biztanleen arteko koefizientea da. Getxon, indize horrek adierazten digu lan egiteko adina duten 10 euskal biztanleko bost eta erdik (5,6) mendekotasunen bat dutela; biztanle atzerritarrei dagokienez, ordea, lanerako adinean dauden 10 biztanleko bik baino (1,9) ez daukate mendekotasunen bat.


9. Erroldan izena eman dutenen jatorria

Azken urtean Getxoko erroldan izena eman duten biztanle atzerritarren jatorriari dagokienez, atzerritik etorritako kopuruak behera egin du, gehienak (%51) beste udalerrri batzuetatik heldu baitira. Kasu horretan, erroldan izena eman dutenen hiru laurden (%77,2) Bizkaiko beste udalerrri batzuetatik etorri dira. Horiez gain, udalerrian jaiotako 154 biztanle (%3) erroldatu dira.


11. TAULA. ERROLDAN IZENA EMAN DUTENEN JATORRIA (2014)

	Gizonak	Emakumeak	Guztira	K
Jaiotakoak	4,0	2,3	3,0	154
Beste udalerrri batetik etorritakoak	49,8	51,6	50,9	2.592
Atzerritik etorritakoak	40,0	41,3	40,8	2.076
Beste arrazoi batzuegatik izena emandakoak	1,2	1,1	1,1	57
Ez-egiteagatik altak	5,0	3,7	4,2	215
Guztira	100,0	100,0	100,0	
K	2.061	3.033	5.094	
%	40,5	59,5	100	


11. GRAFIKOA. GETXOKO BIZTANLEEN ADINAREN EGITURA ETA NAZIONALITATEA (2014)



12. GRAFIKOA. BIZTANLE ATZERRITARRAK ETA EUSKAL BIZTANLEAK, BI ADIN-TALDE HANDIEN ARABERA (2014)



13. GRAFIKOA. BESTE UDALERRI BATZUETATIK ETORRI ETA ERROLDAN IZENA EMAN DUTENEN JATORRIZKO PROBINTZIA (2014)



BIZILEKUA ETA HEZKUNTZA

10. Biztanleen bizilekua, Getxoko barruti eta auzoen arabera

Areetako eta Algortako auzoetan dute nazionalitate atzerritarreko biztanleek pisu gehien (%7 eta %6,9, hurrenez hurren), biztanleria osoa kontuan hartuta. Andra Marin, atzerriko biztanleen portzentajea udalerriko batezbestekoa baino txikiagoa da (%4,6). Dena den, biztanle atzerritarren bizilekua distrituen arabera aztertuz gero, ikusten da biztanle atzerritarren erdia Algortan bizi dela, eta beste erdia Areetan (%36,2) eta Andra Marin (%12,3).

12. TAULA. GETXOKO BIZTANLEEN BANAKETA, BARRUTIEN ARABERA (2014)


	Guztira	%	Andra Mari	%	Algorta	%	Areeta	%
Euskal biztanleak	75.071	93,4	13.448	95,4	36.459	93,1	25.164	93,0
Biztanle atzerritarrak	5.266	6,6	646	4,6	2.715	6,9	1.905	7,0
Guztira	80.337	100	14.094	100,0	39.174	100,0	27.069	100

13. TAULA. BIZTANLE ATZERRITARREN BIZILEKUAREN BILAKAERA, DISTRITUEN ARABERA (2011-2014)

	2011	2012	2013	2014
Andra Mari	13,4	12,8	12,8	12,3
Algorta	52,8	53,2	52,0	51,6
Areeta	33,8	34,0	35,1	36,2


Getxoko biztanleriaren banaketa barrutien eta nazionalitatearen arabera aztertuz gero, ikusten da Algortan eta Areetan biztanle atzerritar gehiago daudela, euskal biztanle baino; Andra Marin, berriz, alderantzizkoa gertatzen da: euskal biztanle gehiago daude, atzerriko biztanle baino.

14. GRAFIKOA. GETXOKO BIZTANLERIAREN BANAKETA, DISTRITUEN ARABERA (2014)



Ezin dezakegu esan, beraz, gaur egun Getxon biztanle atzerritarren artean segregazio sozioespaziala dagoenik, euskal biztanleak eta biztanle atzerritarrak antzera daudelako banatuta barruti guztietan. Gainera, kontuan hartu behar dugu gaur egungo etorkin kopurua ez dela nahikoa kontzentrazio etnikoak sortzeko.


15. GRAFIKOA. GETXOKO BIZTANLERIAREN BANAKETA, DISTRITUEN ARABERA (2014)



11. Atzerriko biztanleen banaketa, atalen arabera

14. TAULA. EUSKAL BIZTANLEEN ETA BIZTANLE ATZERRITARREN BANAKETA, ATALEN ARABERA (2014)

	Atal kopurua	Getxo	%	Euskal biztanleak	%	Biztanle atzerritarrak	%	Atzerritarren %
0-5	23	31.977	39,8	30.791	41,0	1.186	22,5	3,7
5,1-7,5	20	23.869	29,7	22.356	29,8	1.513	28,7	6,3
7,6-10	8	10.208	12,7	9.382	12,5	826	15,7	8,1
10,1-12,5	8	9.217	11,5	8.199	10,9	1.018	19,3	11,0
12,6-	6	5.066	6,3	4.343	5,8	723	13,7	14,3
Guztira	65	80.337	100,0	75.071	100,0	5.266	100,0	6,6




Udalerriko atalen ia erdian (65etik 30), atzerriko biztanleen portzentajea Getxoko batezbestekoa baino handiagoa da. Atzerriko biztanleek pisu gehien duten sei ataletatik lau 3. barrutian daude eta bi 2. barrutian. Biztanleen %10 baino gehiago atzerritarra den 14 ataletan biztanleria osoaren %17,8 eta atzerriko biztanleen %33,1 bizi da. Aldiz, 23 ataletan biztanleen %5 baino gutxiago da atzerritarra. Atal horietan Getxoko biztanleria osoaren eta euskal biztanleen %40 eta biztanle atzerritarren %22,5 bizi da.

Horrela, aurreko panoramiketan adierazitakoa berretsi dezakegu: biztanleriaren banaketa orekatsu ez den arren, ez da kontzentrazio etnikorik gertatu, biztanle atzerritarren bolumena eskasa baita.

12. Getxoko biztanle atzerritarren hezkuntza-maila

Kontuan hartu beharra dauka gu erroldan hezkuntza-mailari buruzko datu gutxi daudela. Hala ere, biztanle atzerritarren %37,3k dio lehen mailako edo maila txikiagoko ikasketak dauzkala, %44,3k bigarren mailako ikasketak egin dituela (lanbide-ikasketak eta bigarren hezkuntzakoak) eta %18,4k unibertsitate-ikasketak dauzkala (diplomak, unibertsitateko lizentziak edo/eta graduondokoak). Gizon eta emakumeen artean ez dago alde handirik.

16. GRAFIKOA. BIZTANLE ATZERRITARREN IKASKETA-MAILA, SEXUAREN ARABERA (2014)




15. TAULA. BIZTANLE ATZERRITARREN IKASKETA-MAILA, SEXUAREN ARABERA (2014)

	Gizonak	%	Emakumeak	%	Guztira	%
Lehen maila artekoak	820	38,1	1.142	36,6	1.962	37,3
Lanbide-ikasketak	95	4,4	136	4,4	231	4,4
Bigarren mailakoak	805	37,4	1.297	41,6	2.102	39,9
Diplomak	99	4,6	206	6,6	305	5,8
Goi-mailakoak	300	14,0	312	10,0	612	11,6
Graduondokoak	31	1,4	23	0,7	54	1,0
Guztira	2.150	100,0	3.116	100,0	5.266	100,0

13. Getxoko biztanle atzerritarren hezkuntza-maila, nazionalitatearen arabera

17. GRAFIKOA. BIZTANLE ATZERRITARREN IKASKETA-MAILA, JAIOLEKUAREN ARABERA (2014)



Nazionalitatea kontuan hartuta egindako hezkuntza-mailaren azterketak antzeko emaitzak eman ditu, aurreko urteetakoan aldean. Nazionalitate europarra duten atzerritarrek (errumaniarrek eta bulgariarrek salbu) ikasketa-maila handiagoak dituzte, eta haiek dute pisu gehien unibertsitateko ikasketak dituzten biztanle atzerritarren multzoan. Lehen hezkuntza-mailari dagokionez, nazionalitate afrikarra edo asiarra dutenak dira nagusi, eta latinoamerikar gehienek (%52,2) bigarren mailako hezkuntza jaso dute.

14. Getxoko ikastetxeetako biztanle atzerritarrak


Araututako unibertsitatez kanpoko ikasketa-mailak kontuan hartuta, Getxoko ikastetxeetan 7.941 ikasle daude matrikulatuta eta 487 ikaslek atzerriko nazionalitatea dute. Ikasle atzerritar horien %73 sare publikoan ikasten ari da; euskal ikasleei dagokienez, berriz, portzentaje hori %52koa da, asko itunpeko ikastetxeetan edo ikastetxe pribatuetan baitaude matrikulatuta.

Euskal ikasleen eta ikasle atzerritarren arteko aldeak hizkuntza-ereduaren aukeraketan nabaritzen dira gehien. Izan ere, ikasle atzerritarren %55ek A ereduari ikasten du, %29k B ereduari eta %16k soilik D ereduari. Aitzitik, euskal ikasleen %25ek ikasten du A ereduari, %23k B ereduari eta gehienek, %52k, D ereduari.

16. TAULA. BIZTANLE ATZERRITARREN BANAKETA HIZKUNTZA-EREDUEN ETA IKASTETXE MOTEN ARABERA (2013-14)

	A ereduari		B ereduari		D ereduari		Guztira	
	Guztira	Atzerritarrak	Guztira	Atzerritarrak	Guztira	Atzerritarrak	Guztira	Atzerritarrak
Publikoak	1.008	233	474	55	2.730	67	4.212	355
Itunpekoak	1.110	34	1.417	86	1.202	12	3.729	132
Guztira	2.118	267	1.891	141	3.932	79	7.941	487


18. GRAFIKOA. BIZTANLE ATZERRITARREN BANAKETA HIZKUNTZA-EREDUEN ETA IKASTETXE MOTEN ARABERA (2013-14)




Horrela, ikasle atzerritar gehienak ikastetxe publikoetan daude matrikulatuta, A ereduari; euskal ikasle gehienek ere ikastetxe publikoetan ikasten dute, baina D ereduari (%35,7).

Hala eta guztiz, Haur Hezkuntzari eta Lehen Hezkuntzari dagokienez, ikasle atzerritar gehienak B eta D ereduari daude. Izan ere, Haur Hezkuntzan, ikasle atzerritarren %40,7 B ereduari dago, eta ia %30 D ereduari. Lehen Hezkuntzan portzentaje horiek %30,9 eta %23,6koak dira, hurrenez hurren; beraz, guztira ikasle atzerritarren erdia baino gehiago.


19. GRAFIKOA. EUSKAL BIZTANLEEN BANAKETA HIZKUNTZA-EREDUEN ETA IKASTETXE MOTEN ARABERA (2013-14)



20. GRAFIKOA. HAUR HEZKUNTZAKO IKASTETXEETAKO IKASLEEN BANAKETA, HIZKUNTZA-EREDUEN ARABERA (2013-14)




21. GRAFIKOA. LEHEN HEZKUNTZAKO IKASTETXEETAKO IKASLEEN BANAKETA, HIZKUNTZA-EREDUEN ARABERA (2013-14)



DBHn eta Lehen Hezkuntzan daude ikasle atzerritar gehien (%9,1 eta %6,3, hurrenez hurren). Hortaz, Getxoko ikasleen %6,1 atzerritarra da.

22. GRAFIKOA. IKASLE ATZERRITARRAK, HEZKUNTZA-MAILAREN ARABERA (2013-14)



ADMINISTRAZIOA

15. Getxoko biztanle atzerritarren erregularitasun-tasaren balioespena

Estatu espainiarrean atzerritartasunaren erregimen juridikoaren bereizgarri nagusia da biztanle atzerritarrei eta bertako biztanleei aintzatetsitako eskubideen parekatze mugatuaren printzipioa: eskubide horien titulartasuna ez da berbera eta nazionalitateari lotua dago.

Gainera, neurri handi batean bizileku- eta lan-baimen administratiboak behar dira biztanle atzerritarrak aintzatetsitako eskubideen titular izateko eta eskubide horiek erabiltzeko. Baimen horiek lortzea zaila denez, erkidegotik kanpoko biztanle askoren egoera administratiboa araz kontrakoa da. Legezko dokumentaziorik ez edukitzeak, gainera, eragozten die eskubideen titular izatea eta eskubide horiek erabiltzea, eta, ondorioz, egoera horretan dauden biztanle atzerritarrak oso kalteberak dira.

17. TAULA. GETXOKO BIZTANLE ATZERRITARREN ERREGULARIZAZIO-TASA (2012)

	ERREGULARIZAZIO-TASA			ERROLDATUTAKO BIZTANLEAK			ERREGULARIZATUTAKO BIZT.		
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak
EB 27	100,0	100,0	98,8	1.249	611	638	1.249	611	638
Bolivia	74,4	68,2	78,4	1.322	483	839	983	330	658
Paraguai	36,1	35,1	36,5	624	126	498	225	44	182
Kolonbia	100,0	100,0	100,0	253	106	147	253	106	147
Filipinak	100,0	100,0	100,0	259	97	162	259	97	162
Peru	100,0	100,0	100,0	187	83	104	187	83	104
Ekuador	100,0	100,0	100,0	105	49	56	105	49	56
Maroko	75,7	72,7	83,2	171	111	60	129	81	50
Txina	95,2	94,7	95,9	126	62	64	120	59	61
Argentina	71,1	71,6	70,6	86	42	44	61	30	31
Honduras	47,8	77,2	38,3	140	32	108	67	25	41
Brasil	61,2	51,1	65,6	87	27	60	53	14	39
Venezuela	62,8	61,8	63,6	63	33	30	40	20	19
Estatu Batuak	80,6	83,3	78,3	85	35	50	69	29	39
Nikaragua	13,5	19,2	12,6	117	9	108	16	2	14
Kuba	99,2	100,0	97,2	64	28	36	63	28	35
Mexiko	69,4	77,7	64,4	48	23	25	33	18	16
Uruguai	77,6	78,0	77,2	31	16	15	24	12	12
Txile	75,1	80,1	70,3	27	12	15	20	10	11
Senegal	63,3	62,9	66,0	25	22	3	16	14	2
Dominikar Errep.	91,2	85,3	94,5	16	4	12	15	3	11
Gainerakoak	57,7	56,1	60,2	244	123	121	141	69	73
GUZTIRA	84,0	86,4	81,6	5.329	2.134	3.195	4.477	1.844	2.606

Erregularitasun-tasaren balioespena egin dugu, Lan Ministerioak bizileku-baimenen gainean ematen dituen probintziakako datuak oinarri hartuta. Horrela, 2012ko urtarrilaren 1eko Bizkaiko datuen arabera (eskura ditugun datu berrienak dira horiek), Getxon erroldatutako biztanle atzerritarren %78,4k (4.500 biztanle inguruk) bizileku-baimena dauka. Hurrengo taulan ikusten da erregularizazioaren eta atzerritarrak hartzen dituen gizartearen ziklo ekonomikoa-

ren arteko lotura. Aurreko panoramiketan bezala, ikusten da egoera behar bezala erregularizatu gabe dutela biztanle atzerritarren multzoan pisu gehien duten nazionalitateetako biztanleek, alegia boliviarrak eta paraguaiarrak: Getxon erroldatutako boliviarrak %74,4k bizileku-baimena dauka eta paraguaiarren erregularizazio-tasa %36,1ekoa da. Izan ere, sasoi ekonomiko zalan-tzagarriagoan heldu direnez, gizarte aldetik kalteberagoak dira eta egoera administratibo irregularragoa dute. Kolonbiatik, Filipinetatik eta Perutik etorritakoen egoera, berriz, legezkoa da, heldu zirenean ekonomia oparagoa baitzen.

16. Etxebizitza eta familia berriz elkartzea

Eusko Jaurlaritzak, 2013an, 51 txosten egin zituen Getxon etxebizitzak bazeudela ziurtatzeko, Gobernuaren Azpiordezkaritzaren aurrean familia berriz elkartzeko eskariak egite aldera.

18. TAULA. FAMILIA BERRIZ ELKARTZEKO LIBRE DAUDEN ETXEBIZITZEI BURUZKO TXOSTENAK,
FAMILIA BILDU NAHI DUTENEN NAZIONALITATEAREN ETA SEXUAREN ARABERA (2013)

	Guztira	Gizonak	Emakumeak	% Guztira	% Gizonak	% Emakumeak
Bolivia	15	4	11	29,4	25,0	31,4
Brasil	1	0	1	2,0	0,0	2,9
Txina	4	3	1	7,8	18,8	2,9
Kolonia	1	0	1	2,0	0,0	2,9
Kuba	2	1	1	3,9	6,3	2,9
Ekuador	2	0	2	3,9	0,0	5,7
Filipinak	11	6	5	21,6	37,5	14,3
Georgia	1	0	1	2,0	0,0	2,9
Honduras	5	0	5	9,8	0,0	14,3
Maroko	3	0	3	5,9	0,0	8,6
Paraguai	4	1	3	7,8	6,3	8,6
Peru	2	1	1	3,9	6,3	2,9
Guztira	51	16	35	100	31,4	68,6

Familia bildu nahi duten horietatik 35 (%68,6) emakumeak dira, eta 16 (%31,4) gizonak. Adinari dagokionez, gehienak (%86,5) 25 eta 44 urte artekoak dira; eta eskatzaileek, batez beste, 35,6 urte dituzte. Nazionalitateari begiratu gero, eskari gehien egin dituzte boliviarrak (%31,4), filipinarrek (%14,3) eta hondurastarrek (%14,3).

- Getxoko biztanle atzerritarren kopuruak behera egin du, 15 urtean lehenbizikoz. Getxoko euskal biztanleen kopuruak eta biztanleria osoak, berriz, gora egiten jarraitzen du. Dena den, nazionalitateari baino, jaiolekuari begiratzen badiogu, ikusiko dugu azken hamarkadan Getxon erroldatuta dauden eta Espainiatik kanpo jaiotakoak diren biztanleen portzentajea bikoiztu egin dela: 2003. urtean %4,6koa zen eta 2014. urtean %9,3koa. Datu horien arabera, beraz, fase berri bat hasi da: orain arte (2000-2008 aldian), atzerriko etorkinak hartzeari eman diogu lehentasuna; orain, ordea, aniztasuna egunero egoki kudeatzeko egin behar dugu ahalegin gehien. Biztanle batzuek atzerriko nazionalitatea dute, beste batzuk jaiotzez atzerritarrak dira (beste herrialde batean jaio dira) eta nazionalitate espainiarra dute, eta beste batzuek nazionalitate espainiarra eta guraso atzerritarrak dituzte (aita, ama edo biak beste herrialde batzuetakoak dira) eta, azkenik, Espainian jaio eta nazionalitate espainiarra dutenak ere badaude. Funtsean, Getxoko udalerrian askotariko biztanleak daude.
- Etorkin gehienak EB28tik kanpokoak dira eta erroldatutako biztanle atzerritarren erdia baino gehiago (%58,5) latinoamerikarra da. Biztanle latinoamerikarren multzoan, emakumeen tasa gainerako nazionalitateetako baino handiagoa da; gainera, Getxon erroldatutako biztanle atzerritarren %38,3 Latinoamerikatik etorritako emakumeak dira. Profil hori bat dator udalerriko enplegu-nitxoekin; izan ere, zerbitzuen sektoreko eskaria handia da, batik bat zerbitzu pertsonalen arlokoa (etxeko lanak eta adindunen eta haurren zaintza).
- Nazionalitate ugariak hauek dira: Bolivia (%24,5), Paraguai (%11,1), Errumania (%9,4) eta Filipinak (%5,3). Erroldatutako biztanleen jaioterriaren azterketak agerian uzten du bertakotu diren atzerritar gehienak Kolonbia, Peru eta Ekuadorrekoak direla. Berriz ere, nazionalitateari buruzko datuak soilik ez du udalerriko aniztasuna islatzen.
- Biztanle atzerritarren adin-egitura euskal biztanleena baino gazteagoa da; ondorioz, atzerritarren mendekotasun-tasa txikiagoa da. Hala, lanerako adina duten atzerriko 10 biztanleko, bik (1,9) baino ez dute mendekotasunik; euskal biztanleen karga, ordea, handiagoa da: lan egiteko adina duten 10 euskal biztanleko, 5,6 biztanlek mendekotasunen bat dute. Kontuan hartu behar dugu, gainera, euskal biztanleen gaineko datu hori "hobetzen" ari dela nazionalitate espainiarra duten atzerritarrei esker, horien adin-egitura gazteagoa baita.
- Erroldan izena eman duten biztanle atzerritarren jatorriari dagokionez, beste udalerrri batzuetatik etortzen diren atzerritarren pisuak (%51) gora egin du azken urteetan. Gehienak, gainera, Bizkaiko lurralde historikoko beste herri batzuetatik heldu dira; diskurtso alarmistek, beraz, ez dute funtsik, atzerritarrak dei-ekektuak erakartzen dituen ustea, esate baterako.
- Bizilekuari dagokionez, datuak aurreko urteetako antzekoak dira: biztanle atzerritarren erdia, gutxi gorabehera, Algortan bizi da, eta beste erdia Areetan (%36,2) eta Andra Marin (%12,3).
- Eskolatzeari dagokionez ere, euskal biztanleen eta biztanle atzerritarren arteko aldeek berdintsu jarraitzen dute: euskal ikasle gehienak (%51,7) D ereduan ikasten ari dira, eta biztanle atzerritarren erdia baino gehiago (%54,8) A ereduan. Gainera, euskal ikasleak ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxeetan ia erdiz erdi daude banatuta (%51,7

eta %48,3, hurrenez hurren), eta ikasle atzerritar gehienak, ordea, sare publikoan daude matrikulatuta (%72,9 ikastetxe publikoetan eta %27,1 itunpeko ikastetxeetan).

- Hezkuntza-mailak kontuan hartuz gero, ordea, ikusten da Bigarren Hezkuntzan ikasle atzerritar gehienak A ereduari daudela matrikulatuta, eta Lehen Hezkuntzan eta Haur Hezkuntzan B eta D ereduari: Lehen Hezkuntzan, ikasle atzerritarren erdia baino gehiago (%54,5) dago B edo D ereduari matrikulatuta; eta Haur Hezkuntzan ikasle atzerritarren ia hiru laurdena (%70,3).
- Edonola ere, ikastetxeek ikasleentz gaitasunak dauzkaten datuak zehaztu behar dira, ez baitute egoki jasotzen ikasgeletako dibertsitatearen berri; izan ere, ikasleentz nazionalitatea bakarrik hartzen dute aintzat, ez dituzte kontuan hartzen jatorriz atzerrikoak diren eta nazionalitate espainiarra duten haurrak, ezta guraso atzerritarrak (aita, ama edo gurasoak) dituzten nazionalitate espainiarreko haurrak ere; eta hori guztia aniztasunaren adierazle ere bada. Datu horiek garrantzitsuak dira, EAEko 0 eta 4 urte arteko haurren %17,8ren aita, ama edo gurasoak jatorriz atzerritarrak direlako.
- Egindako balioespenen arabera, udalerrian erroldatutako biztanle atzerritarren %78k, gutxi gorabehera, bizileku-baimena dauka. Aurreko urteen antzera, egoera behar bezala erregularizatu gabe duten biztanle atzerritar gehienak paraguaiarrak, nikaraguarak eta honduratarak dira, horiek baitira gure artean denbora gutxien daramatenak. Kolonbia, Ekuador, Peru eta Filipinetatik lehenago etorritakoen erregularizazio-tasa ordea askoz handiagoa da.
- Familiak berriz elkartzeko etxebizitzak daudela egiaztatzeko 51 txosten egin dira, eta eskari gehien emakumeek eta latinoamerikarrek egin dituzte.
- Datu objektiboek batzuetan ez dute behar bezala argitzen Getxoko immigrazioaren inguruko errealitatea; baina, Bizkaiko eta EAEko datu globalagoak ere aintzat hartuta, irizten diogu oso garrantzitsua dela atzerritarren gehitze-, gizarteratze- eta integrazio-prozesuez arduratzea, betiere ikuspegi segmentatua oinarri hartuta. Datuen arabera, prozesu horiek asimetrikoak dira: pertsona eta kolektibo batzuk gizarteratean lekua hartzen ari dira eta gizarteratze-adierazle oso positiboak dituzte; beste kolektibo batzuk, ordea, gizarterateak baztertzeko arrisku larrian daude. Azken horiek adierazpen-zailtasunak dauzkate, hizkuntza ofizialak ez dakizkitelako; baita kolektibo batzuen estigmatizazioak eragindako hainbat arazo ere; eta prestakuntza gutxi dute (gaur egun, gainera, lehia eta behar den prestakuntza-maila gero eta handiagoak dira); batzuetan, gainera, autonomia pertsonal mugatua daukate, bizi diren testuinguru kultural eta erlijiosoak dela eta.